

Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1997ko abuztuaren 22a

✱



Zarauzko hondartza oso gustukoa eta maitea dute nafarrek.

Nafarroako hondartzak

■ Nafarroako matrikulako auto ugari ikus daitezke uda sasoian Zarauzko eta Hondarribiko hondartzen inguruetan. Gipuzkoako bi herri horiek dituzte gogokoen nafar askok. Hondarribira lasaitasun bila

eta Zarautzera *martxa* aurkitzera joan ohi direla aitortu digute hainbat lagunek. Nafarroako kosta berria bihurtzen hasi ote diren ere pentsatzen hasiak gara. ■

GURE AUKERAK

KONTZERTUAK:

Gorriti: Gaur, bihar eta etzi dantzaldiak gaueko 24:30etatik aurrera Trakets taldearekin, herriko pilotalekuan.

Orreaga: Kultur 97ko egitarauaren barruan, Speculum Musicae taldeak musika klasikoaren jarraitzaileentzat kontzertua eskainiko du eguerdiko 12:30etan eta arratsaldeko 17:45etan.

Lizarra: Gaur, gaueko 22:00etan, Los Llanos pasealekuan, Los gitanos de Rajasthan-en emanaldia izango da. Bihar, berriz, ordu eta leku berean, Enrike Morente eta Lagartija Nick izango dira. Igandean Radio Tarifaren txanda izango da, ordu eta leku berean.

Eraso: Bihar gauean, herriko festak direla-eta Skalariak taldearen kontzertua.

Deikaztelu: Flitter taldeak kontzertu bikaina eskainiko du ostegunean.

Erronkari: Sabina Puertolas sopranoak, Esther Andueza piano jolearen laguntzaz, kontzertu bikaina eskainiko du Erronkariko Gazteluan, igandean, eguerdiko 12:30etan.

ZINEMA:

Barañain: Gaur, *Barañainen Zinea* egitaraua dela-eta *Mars Attacks!* pelikula eskainiko dute gaueko 22:00etan, Lakuko berezko anfiteatroan. Eguraldi txarra egingo balu, Sahats ikastetxe publikoan.

Olkotz: Gaur, gaueko 21:30etan, herriko plazan, *Los demonios de la noche* pelikula izango dugu ikusgai, *Herriz Herri* egitarauaren barruan.

Zangotza: Goazen zinemara kanpainaren barruan, *Mars attacks!* pelikula izango da asteazkenean, kultur etxean, gaueko 22:00etan.

Atarrabia: *Berdinak gara, desberdinak gara* kanpaina dela-eta *Marea Blanca* filmea eskainiko da ostegunean, Pakearen parkean, 22:00etan.

ANTZERKIA:

Mutiloabeiti: *Artea eta Kultura* egitarauaren barruan, *Los caminos a nunca jamás* antzezlanak eskainiko du Pimpilipauxak bihar, gaueko 9:30etan Mutiloa enparantzan.

Lorka: Narrentrepe taldearen eskutik eta *Herriz herri* kanpainaren barruan, *Ekilicu* antzezlanak izango da gaueko 21:00etan, herriko plazan

ERAKUSKETAK:

Irunberri: Olio ezginiko lan ugariaren erakusketa izango da Udaltzeko erakustokian datorren ostirala bitartean. Ordutegia: goizez, 12:00etatik 14:00etara eta arratsaldean 19:00etatik 21:00etara.

Lekunberri: Kultur 97 dela eta, abuztua amaitu bitartean Juan Gorritik Mitxusena kultur etxean ditu ikusgai bere lanak. Ordutegia: 11:30-13:30 / 18:30-21:30.

nafarkronika

Kike Diez de Ultzurrun

Kantu eta festa; festa eta kantu

Izenburuak dioten bezala, gida horretan aitzinera doa turismotik bizi direnentzat trenputxartutako uda. Diputazioruak ere ez du atzean gelditu nahi, eta, izugarri alegeratuko zaio uztailleko bihotz goibeldua.

Bazirudien uda osoan ibiliko zela deluari lotuta, batez ere iruindarron gai nagusiak bertan behera uzten, buru-elarri, nola saiatu zen ikusi ondoren. Baito! Alimaleko alegantzia hori jokamoldean agertuko du Tafallan. Zeruko mahaietan partizipante dabilen Raimundo Lanasen belarrien zulagarri. *Ama Birjina* agorrilekoetan txintxurra arraildu eta gero, Andre Dena Maria buruilekoetan ere arituko da eta segituko du harik eta Corellako Sanmiguelak iragan artio. Beharbada, jotagintzan erdietsi nahi du politika munduan lortu ez duena, hots, herrialdeetik kanpo ezaguna izatea. Ez dago batere argi ikasketak eginga ote dagoen. Futbolearen ordea, ba aitortu behar zaio bazeukala nola halako

abilezia, bazeukala nola halako trebezia, noski, harmailtako zaletuak kanpoko jokalariren aurka amorrarazteko, besoak gora eta behera astinduz. Alde horretatik, nafar guztiek ez daukate nire adiskide-futbolari ohi batek daukan gogobetetasuna, erran nahi baita hari futbol oinetako bat buru gainera bota izanaren plazerra. Marrullero futbolearen, marrullero politikan. Preserbagailuen enpresa batean bazkide, enpresal erreka jo, txiripaz politikagintzan sartua, Iruñera esku hutsik etorria, eta, gaur egun, jaun eta jabe, lasai jarrita, sozialistak (auskalo zergatik) ederki lotu ondoren. Oraingoan, behintzat, BM multinazionalaren zerbitzua etxetik kanpoko irudia zaintzeko baliatu nahi dute. Baina, nork daki ez ote duen enpresa horren beharra izanzen zenbait aferatan.

LAN, eta oraindik azaleratu ez diren zenbaitetan. Bitartean, kantu eta festa, festa eta kantu, aferaren batek eztanda egin artean, behintzat.



asteko pertsonaiak



Joaquin Pascal
Iruñeko PSNko zinegotzia

■ Joaquin Pascal zinegotzi sozialistak jaso duen mehatxu-gutun anonimoak eman du zeresanik aste honetan. Pascalek astelehen gauean jaso zuen gutuna, ordenagailuz idatzita eta sinadurarik gabe. Idatzian, PSNko udal taldeko bozeramaileari 30 eguneko epea eman zioten Euskal Herritik alde egiteko. Hori ez badu egiten, «inork nahiko ez lituzkeen neurriak» hartuko dituztela jakinarazi diote. Pascalek iruindar guztien aurkako mehatxutzat hartu zuen gutuna, eta Nafarroatik ez duela alde egingo iragarri zuen. Esan zuenez, orain arte bezala jarraituko du, NUPeko matematika irakasle gisa eta Iruñeko Udalean zinegotzi lanetan. Iruñeko Udaleko alderdi politikoko guztiek arbuia dute mehatxua.



Miguel Sanz
Nafarroako Gobernuoko lehendakaria

■ Miguel Sanz Nafarroako Gobernuoko lehendakaria asteazkenean itzuli zen oporretatik. Itxura denez, berriro egunkarietan ateratzeko irrikitan bueltatu zen, ailegatu bezain laster prentsaurrekoa eskaini zuen eta. Agerian gelditu zen ez zuela esateko gauza berri handirik. Errepasoa eman zien azken asteetako datu ekonomikoak, eta uztailen, oporretara joan aurretik, esandako guztiak errepikatu zituen. Langabezia tasa laster % 9tik behera egongo dela ziurtatu zuen, eta inbertsio gehiago iragarri zituen, nahiz eta ez zuen zehaztu nork, noiz eta nola egingo dituen. Aurten erreforma fiskala egingo dutela aipatu zuen, baina hori ere ez da berria.

ahaztu gabe!



IKASTAROAK

Uda aurrera badao ere, oraindik bada zer ikusi eta zer egin. Aspertzen denak Iruñeko kultur zentroetan antolatu diren ikastaroetan izena eman besterik ez du. Iturrana, Jus la Rotxa eta Nabarrera zentroek hainbat ikastaro antolatu dituzte iraileko, eta horietako lauretan bada tokirik. Dantza mugimenduak eta koreografia edo munduko dantzak ikasi, ligatzen saiatu edo irratian trebatu nahi duenak badu aukera. Dantza mugimenduak ikasteko ikastaroa arratsaldean izan da astearte eta ostegunetan, eta munduko dantzak astelehen, asteazken eta ostiraletan arratsaldean ikasiko dira Iturrana eta Jus la Rotxa zentroetan. Ligatzen ikasi nahi duenak, berriz, Iturrana joan behar du astelehen, asteazken eta ostiraletan. Irrati ikastaroari dagokionez, Nabarrerako zentroan bakarrik erakutsiko da irailaren 22tik 26ra arte iraunen du. Aipatu ikastarootako matrikulak 1.000 pezeta balio du. Izena emateko epea heldu den astelehen zabalduko da, eta ikastaroak hasten direnean bukatuko.

adi!

Euskalerria Irratia FM 91,4

Egunero astelehenetik ostira- lera, *Zokobetailu*, goizeko 10.00etatik 12.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteen- dako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkar- rizketak.

Irati Irratia FMko 107.7n eta 103.8n

Ostiralero *Txirristi-Mirristi* hau- rrentzako saioa 12.30etan.

Lakuntza

Trikitilari txapelketaren finala igandean

Zortzi bikote ariko dira herriko plazan, nor baino nor, txapela eskuratzeko asmoz



Aurtengo edizioan bikote gutxi hartu dute parte.

OSKAR MONTERO

Urko Aristi / Iruñea

Igande eguerdian, Lakuntzako plaza trikitizalez beteko da, bertako oholtza gainean izango baitira Nafarroako IV. Trikitilari Txapelketaren finalera iritsi diren zortzi bikoteak. Lakuntzarako bidean, bi kanporaketa gainditu behar izan dituzte txapelketan izena eman zutenek: lehena, Arantzan, eta bigarrena, Goizuetan. Finalerako txartela lortu duten bikoteak ondorengoak dira: Ione eta Jose Mari Elgorriaga, Lesakakoak (Ione iaz txapeldun izan zen Maider Ansarekin batera); Nerea Erbiti eta Melany Eskudero, Leitzakoak; Oihana Almandoz eta Nagore Ansalas, Lesaka eta Etxalarakoak; Irune eta Patxi Zabala goizueta-rrak; Olatz Irigoien eta Leire Amoros, Arantzakoak; Amaia eta Ioseba Irastorza, Berakoak; Nekane Etxandi eta Jasone

Nafarroako Trikitilarien IV. Txapelketaren finala Lakuntzan jokatu da igande honetan, eguerdiko 12:30etan. Txapelketara aurkeztutako hamahiru bikoteetatik zortzi iritsi dira finalera. Guztiek ere maila ona erakutsi dute aurreko kanporaketetan.

Mitxelorena, Lesaka eta Etxalarakoak, eta Iosune Pikabea eta Iulen Zelaeta, Berakoak.

Trikiti txapelketa guztietan gertatzen den modura, honetan ere bikote bakoitzak lau pieza jo beharko ditu: trikitixa, porrusalda, fandangoa eta arin-arina, oholtza gainera igotzeko erabiltzen den kalejiraz gain. Trikitilariak erakutsitako erraztasuna, erritmoa, ahotsa eta kantua izango dituzte kontuan epaimahaiko kideek. Ez dute lan erraza izango, inondik ere, maila handia erakutsi baitute zortzi bikoteek.

ETBko kamerak ere bertan izango dira, Lakuntzaraino hurbiltzerik ez duenari hango giroa eta han entzungo direnak eskaintzeko asmoz. Hala ere,

zuzeneko ikuslerik ere ez da faltako, herriko festak izaki jende ugari bilduko baita oholtza ingurura. Gainera, Sakanan trikitixarekiko zaletasuna ez da gaur goizeko kontua.

Partehartzaile gutxi aurten • Beste urteetako edizioekin alderatuz, aurten oso bikote gutxi hartu dute parte txapelketan: hamahiru baino ez dira izan. Gainera, bada harrizko modukoa den beste datu bat: aurten ez da Sakanako ordezkariarik izan, eta bertako gazte askok parte hartu izan dute bestetan. Itxura denez, disko baten grabaketan ari dira buru-belarri eta ezinezkoa izan zaie txapelketaren pres-takizunari beharrezkoa den den-

bora eskaini. Adin mugarik ez badago ere, gazte jendea da gehienbat txapelketa honetan parte hartzen duena. Izan ere, gazteak dira gehienbat trikiti eskoletako ikasleak. Duela urte batzuk, Nafarroan ez zen horrelako eskolarik, baina azken urteetan ugari eta Nafarroa guztian zehar zabaldu egin dira. Dagoeneko kasik ez da trikiti eskola ez duen zonarik. Bizkaian ere antzeko gorakada izan omen da, eta jakina da Gipuzkoan betidanik izan dela zaletasun handia. Beharbada gorakada horretan izan dute zerikusirik Gozategik, Maixa eta Ixiarrek eta beste hainbat taldek beren trikiti hotsak gazteei hurbiltzeko egin dituzten ahaleginek. X

Aezkoa

Nafarroako Pirinioetako Partzuergoak ibilbide turistikoaren eskaintza berezia handitu du

Besteak beste, Aezkoako garaiak, Orbaiztako arma lantegia eta Donejakue Bidea ikus daitezke ibilbideetan

Urko Aristi / Aezkoa

NAFARROAKO Pirinioetako Partzuergoak orain arte zituen ibilbide turistikoaren eskaintza handitu egin du Aezkoako bailaran. Hara hurbiltzen den bisitariak, besteak beste, Aezkoako garaiak eta Orbaiztako arma lantegia ikusteko aukera izanen du, baita Donejakue Bideak eskaintzen

dituen ibilbideak egiteko parada ere.

Ekimena joan den urtean abiatu zen eta, izan zuen arrakasta aintzat hartuz, aurten eskaintza zabaltzea erabaki du Pirinioetako Partzuergoak. Partzuergoak dioenez, helburua Aezkoako herrieta-ko ohiturak, artea eta historia barrutik ezagutaraztea izanik, bailararen sustapena turismoa-

rekin uztartu nahi da, beste diru iturri batzuk lortzeko.

Ekimenak herrietan eskaintzen dituen ibilbideak askotxo dira. Ibiltariak Orbaiztako arma lantegia, Aezkoako garaiak, Larrasoñeko herria eta Irunberri -herrialdeko Donejakue Bidean esanahi handikoa- ikus ditzake. Baina eskaintza zabalago da. Bederatzi taldek txango-

ak, martxak mendi bizikletaz, oreinak hazten dituzten itxurak bisitatzea eta zaldizko ibilaldiak antolatu dituzte.

Dena den, eskaintza ez da Aezkoarako bakarrik. Zaraitzun ere aukera anitz baitaude.

Besteak beste, Ibañetako hegazti migratzaileen zentroa edota Orreagako museoa bisita daitezke. X

Erriberri

Erdi Aroko festan murgilduko dira asteburuan herritarrak

■ *Merkatuaz gain, besteak beste, dantzaldia eta antzerkia izanen dituzte gaztelu zaharrean*

Irene Arrizurieta / Iruñea

ERDI AROKOEN tankerako festa etengabean murgilduko da bihar eta etzi Erriberriko herria, baita hara hurbiltzen diren bisitari guztiak ere. Herriko sarreran Erdi Aroko estandarteek eta balkoietako zintzilikarioek eta loreek garai hartara eramanen dute bisitaria, eta merkatua, festak, dantzaldiak, otorduak eta zaldunen arteko torneo ikusgarriak izango dira Erriberriko herrian.

Nafarroako Erdi Aroko Jantzi eta Jakien Elkarteak merkatua zabalduko du herriko plazan. Azokan berrogeita hamar postu jarriko dira, eta, janaria ez ezik, egurrez, lohiz, larruz, paperez eta beiraz egindako artisaun lanak eskuratu ahal izanen dira. Baina merkatuaz gain, izanen da zer egin eta zer ikustekorik Erriberri.

Arratsaldean jokatu den torneoan parte hartuko duten zaldunek kalez kale desfilea egingen dute goizeko lehen orduetan. Aldi berean, musikaren doinuei jarraituz, axtiak eta malabare farregarriak karrikaratuko dira. Bazkaltzeko otordua egin baino lehenago Tafallako arkerok erakusketa bikaina egingen dute gazteluan, eta San Adriango falkoneria taldeak domatutako zapelatzen janari bila egiten duten joan-etorrien ikuskizuna egingen dute astebukeraren.

Bazkari legea egin ondotik, Santa Maria elizan Paulino Otamendi taldeak kontzertua eskainiko du 17:00etan. Bi ordu geroago torneoan ariko diren zaldunak itxiturara hurbilduko dira goizean elkarri botatako desafioa betetzera. Torneoa bukatzean eta merkatua ixtean, Erriberriko gazteluak hartuko du jaiaren lekukoa. 22:30etan Erdi Arokoen erako afaria egingen da gazteluaren atzealdean. Hara bertaratuak, 2.500 pezeta ordainduta, hasteko odolkia, txistorra eta hirugiharrea dastatuko ditu, eta ondoren ogi pusketa frijituak eper saltan barazkiz lagundurik. Afalondoan, azkenik, mahalkideak herriko jauregiraino abiatuko dira erret segizioarekin han egingen den dantzaldian parte hartzeko. Dantzaldian zehar TEN antzerki taldeak Erdi Aroan girotutako antzezlan ikusgarri bat eskainiko du. X

Xanti Begiristain

Trakeskeria gehiegi

■ Gaizki-ulerturik izan ez dadin, hasieratik esan nahi dut nik ez dudala jotzen neure burua ez jakintsutat ezta aditutzat ere euskararen kontuetan. Soil-soilik adierazi nahi dut euskaldun euskaltzalea eta euskara irakasle arrunta naizela, besterik gabe. Horrexegatik, hain zuzen ere, beharbada euskararen irakaskuntza nire lanbidea delako eta euskaltzale apala naizelako, uste dut euskarari ere eman behar zaiola berea, hau da, merezi duen begirunea.

Gorago ahaztu zait esatea, baina oraintxe esanen dut, alegia, badakit oso pertsona askarra naizela, eta, beraz, neure akatsak ditut, ugariak. Gizarte honetakoa naiz, eta jende guztia bezala, ni ere akasduna naiz, okerrak sarritan egiten ditut, baina behintzat saiutzen naiz erre horiek gutxitzen, eta, batez ere, behin eta berriz errepika ez daitezen akats berak.

Zertara ote datorren erretolika hau guztia galdetuko diozu zeure buruari seguru asko. Segituan saiaturiko naiz azaltzen.

Har, naiz eta oporretan nagoen, egunero-egunero entzuten ditut programak Euskal Irrati eta Telebistan, eta hona hemen zer-nolako gauzak entzun eta irakurri ditudan azken hiru egunetan. Esate baterako, *nerbiosa nago, histerika da, seria zaude, Espainiako ministra, pelikulako aktorea, emakume erlijiosak, ko-reografa berria, batetan, batetara, batetakoa, pertsona espeziala* (apartekoa, bereziaren sinonimoa), *hiruetan, lauetan, seiretan, zazpiretan, zortziretan, seirehun, zazpirehun, zortzirehun, bederatzirehun, Madriyen* (Madrilen orde), *biyera* (bileraren orde), *epaiye* (epaileren orde), *gatos* (gatoz), *sortzi* (zortzi), *atentzioa deitu*, *faltan bota*, *benetazkoa*, *brilloa* (distira, dirdira), *Osa Mayor*, *Osa Menor*, *alemandarra*, *pelikula doblatu*, *hamaiketan*, *europar*, *gure gaurko saioa*, *nire Iruñeko lagunak*, *langabeziarekin bukatu behar dugu*, eta abar, eta abar.

Azpitarratu nahi dut hiru egunetan ikus-entzundakoak direla, exajeratu gabe, eta gainera diru publikoaz ordaintzen diren euskal komunikabide horietako *profesionalek* esan eta idatziak izan direla.

Horiexei eman nahi diet garrantzia, hain justu ere, alde batetik, nik ez ditut ematen eguneko hogeita lau orduak euskal komunikabide profesional publikoak ikus-entzuten, eta, bestetik, inolaz ere ez naiz aritzen begi-erne eta belarri-zut ea zer akats harrapatzen dizkiedan. Ezta gutxiagorik ere. Kontua da, oso sarritan egiten dituztela akats horiek eta beste asko, eta sentiberatasun pittin bat baldin baduzu behintzat, nahi gabe ere ohartzen zara aipaturiko huts egiteaz.

Aurreko guztiari buruz gogoeta, kritika, galdera, iradokizun batzuk eta abar egin nahi ditut:

1.- Komunikabide horiek izaten omen dituzte euskara-teknikari profesional eta eskudun batzuk, baina aitortu beharra dago batzuetan ez dela gehiegi nabaritzen, egiten duten akats pilarengatik eta errepikatzen dituztenengatik. Beharbada, arrazoi bat izan liteke orain oporretan daudela, eta hasberriak dituztela ordekoak.

2.- Zer pentsatuko ote genuke (lukete) beste horrenbeste gertatuko balitz gaztelaniaz, frantsesez, ingelesez eta abar? Egundokoa, ezta hala? Orduan zer gertatzen da, euskara gutxiesteak bost axola digula edo zer?

3.- Gogoan izan dezagun hamarkada ugaritxo kosta izan zaiola Euskaltzaindiari arauak ematea. Duela bizpahiru urte hasi da ematen, eta zer gertatzen zaigu, ez garela gauza ikasteko eta praktikan jartzeko, paso egiten diegula, ez dutela funtsik, edo zer?

Sermoiak bukatzeko, bi gauza besterik ez: euskarak gehiago merezi du (euskaldunok ere bai), eta hobe da berandu zuzentzea, inoiz ez baino. ■

Klasiko bitxi • arrot klasiko

Joxemiel Bidador

Idazle zarotar baten burutapenak

■ Zaroin etxea Unanun dagoen arren, ez da Ergoienkoa 1841.ean munduratu zen Jean Pierre Arbelbide, garaztarra baizik. 1867.ean apezte ostean ez zen eliz-parrochia undats batean ekuratu, eta uste baino lehen Hazparneko misiolariaren etxeko nagusia izatera iritsi zen. Urte haletan gogor ihardun zuen Belokoeko beneditarren lekaidetxe berria sortzeko, eta langintza horretan gelditzeke labaindurik, antzeko asmoak agertu zituen Hazparneko misiolari-etxea apezpikuaren menetik ateratzeko, orden berri baten antzera sortuz edo. Alabaina Baionako gotzaiari ez zitzaion gehixegi laketu ideia eta zarotarraren amets sortzaileak bertan behera gerarazi zituen. Hau gertatu aurretik, eta hasiera bateko asmoetara plegaturik, Hego Ameriketara nahiz Erromara bidaiatu zuen. Nonbaiten ere 1888. urte aldera Iruñeko eliznagusiko kalonje izan zela agertzen da. Baionako gotzaiarekin zezakeen aharrari sahesbidea ote. Azkenean, benefiziadutza baten sortu zuen Baionako eliznagusian, zeinaren eratzalea eta mozkin jasolea zen aldi berean, eta ber elizan kalonje iraun zuen bizi bitartean, hau da, 1905. edo 1908. urterarte.

Bat baino gehiago dira Arbelbidek ondu liburuak, oro har erlijioa gai nagusi dutenak. Moldizkiratu lehenbizikoa 1887.eko Bokazio-nea edo Jainkoaren deia dugu, Lillen agertu zena, San Agustinen elkhartasuneko Jaun Descl'e de Brouwer eta heklen lagun mol-detegian, Zunharretako Intxausperen baimenarekin. Argira eman bigarrena Erlisioa: Eskual Herriari dohazkon egiazki beharrenak, Heren Ordenako chehetasunekin eta meza-bezperen othoitzeekin dugu, hiri flandriarrek irarkola beretik 1890.ean elki zena. Arras liburu potolo hau Lapeireren Kredo edo sinhesten dit espikatua liburu famatuarekin antza ikaragarria dauka: erlijioaren gizakiak lezakeen beharraz, elizaren ondareez, Jasukristoren potereaz, Alta Santuen trunpatze ezinaz, fedez nahiz sinismen ezaz, edota Leon XIII. aita santuak proposatu hirugarren ordenaz. Ez da harritzekoa baina, alta Bidarteko apez askaindar adinkidea ekanduzko lankidea baitzuen, geroxeago ikusi ahal izanen dugunez. Lan honetan hiru dira irakur daitezkeen baimenak: Jaun Intxauspe bikario jeneralarena: «Gutziatzeko da beraz liburu hau eskual-herriko familia guztietan khausi dadien eta artharekin irakur», Jaun Beltzagari Donibane Garaziko apez askaindar adinkidea ekanduzko lankidearen. Heren ordreko anal arreberi bi hitz, 1890.ean eta ohizko lekuan ere agertu zuen karrikara. Halaz guziz, eta gai berbera kiribilkagai, Hazparneko Etxepareren Tierceren escu liburu -Baiona, Lasserre, 1862 eta 1870-, eta mendean Luka Babaki Arranbide zen Blas Mendiondokoaren 1914.eko Heren ordenako erregularen xehetasunak liburu pareta dakegu.

Dena den Arbelbideri osperik nabarmenena erakarri zion lana Igandea edo jaunaren eguna meza bezperen othoitzeekin izan zelako bagaude. Beste guztiak bezala Lillen 1895.ean azaldu zen, eta izenburuak dioten gisaz, Igandean kristauki nolatan zotukatu erakustea luke helburu. Liburu hasmenta, ordea, Aitzin solasako goiburua duen atarikoan euskararen eta euskaldunen gaineko hainbat burutapen luzatu zituen, zinez interesekoak eta egungora arrot egokigarriak mende pasea jagoitik higatu den arren: «Erdaratar horiek gure bilkhura guztietan dathozi, erdi frantses eta erdi gaskoin, hastean ez deraute nihork irri beizik egiten, delakotz heyen elhea nahasia bezain bitchi, baiman hek ez dire lotsatzen! Ergelkeriari datcheko thema, eta ihesi joan behar orde, listor burumba horiek darrazku bethi, erdara dariotela. Nik uste lotarik ere erdaraz amesten diren, eta ahalik balute, gauaz ere lethorzke berdin gure beharrietara. Huna zer den ene beldurra: erdarari sobera trebatuz, eskualdunek premia ttipitan har dezaten herriko mintzaya, eta geroztik ezacholaki bazterrerat utz dezaten. Britainako eskualdetan gaindi ibilia naiz demboran, eta nola Britainiak mintzaya bat baitu gurea bezala zaharra eta alde guziz ederra, mintzai hortako gizon jakintsunenak ikhusi nahi izan ditut. Gu uzkur bezain hek erne ete lehiatuak dire. Ala aitorensemek, ala aphezek, bai eta aphezpikuek berek entsegu frango baderabilate herriko mintzaya zahar ederra chutik atchiki beharrez. Ochala hortaratuak bagine gure Eskual Herri maitean! Ai orduan ez ginuke ez egroaz lotsatzerik, gure mendietako harrokek bezembat iraun lezake gure eskuarak».

Hona arte ekarri laukotearekin ertsi ohi da Arbelbideren ekoizpen idatzia, baina gehiago badira Zarokoak largatu zizkigunak. 1889.ean eta Baionako Lasserren etxean Hazparneko misionesteyan Jesusen Bihotz sakratuaren anayak atera zuen, eta bederatzirte beranduago Archives des Missionnaires de Hasparren inprimarazi zuen Buenos Airesen. Ezagunagoa dateke ordea 1892.ean Baionan agertu Hazparneko kalbarioa eta kantika eskuarak beren aireekin. 1890.ean Hazparneko Arroltzemendi kaskoan kalbarioa eraiki zutenean, Arbelbidek berak bildu zituen orduko predikalari euskaldun hobereenak bertan mintza zitezen. Arbelbidek bakoitzari zehaztu zion beharreko gaia, nahasmendurik izan ez zedin, eta halaxe, Larresoroko apez zen Arnaud Abbadiek, Jean Leon Bastresek -Agustin aita senperetarra Belokoeko komentuko fundatzailea eta abadea Idiazabalen 1904.ean zendu zenak-, gorago aipatu Beltzagik, Txoribitek, Lapeirek eta Zanzimenak tajutu sermolekin gehi Arbelbidek berak jaso kantekin eta haueri zihozkien partiturekin batera apailatu zen liburu hau. Urte honetantxe ere, zensoregile arizan zen, Sakelako liburuchka edo gristino guztientzat on den esku liburu ttipia Mixel Elizanbururen idazkiaren aintzineko orrietan begizta daitekeen gisan. ■



Idoiako Andra Mariren Santutegia: Altxor etnologiko bat erronkariko Pirinioetan

Balio etnografiko izugarria duten ehundaka tresna bildu ditu erakusketa batean Felipe Ipas Anaut ermitauak

Ernonkariko Izaba herri-
ra iristerakoan, herrira
bertara sartu gabe, zubiaren
ezkerraldeetik bide estu eta
erdi harriztatu bat abiatzen
da. Bide horrek erromesak
eta turistak ibilaldi atsegin
batera gonbidatzen ditu.

Fernando Hualde / Izaba

IBILADI horren hasieran Ezka ibaiaren zurrumurrua bidelagun izaten da. Udararen sasoi honetan, hurrondo lirainek oraindik heldu gabeko fruituak erakusten dizkigute, eta hor dabil, adarrez adar, txepetx txikia gure pausoak zainduz, bere jakinmin jatorra asetu nahian. Jakinmin horrek bultzatuta lagunduko gaitu txepetxak bide guztian.


San Pedroren iturria eskuine-tara utzi, erreka gainean zintzilik, eta bidexka aldapan gora abiatzen da, landarez jositako korridore estu baten barna. Gaua zenbait orduz aurreratu denaren antza eskaintzen duen pasadizoan, ibiltaria maria biderik ederretik doan erromes bihurtzen da. Bidearen azken txanpan, Idoiako santutegia begi aurrean azaltzen denean, bidea zelaia da, gerora izango dugun aldapatxorako indarrak gorde ahal ditzagun. Bidearen bi aldetara zenbait baratza daude, antzina putzuak edo idoiak (ihi lurraldea) ziren leku berean. Herriko kondairaren arabera, Ama Birjina bertan azaldu zen.

Ermitarako iritsiera begiei eskainitako opari paregabea da. Alde batetik, Pirinioetan ohikoa den moduan, inguru guztiz zoragarriaren gaude, bertan natura eta espiritualtasunak bat egiten dutelarik. Eta, bestetik, ermita eta ingurua primeran zainduak daude ikusi ahal izango dugu, garbitasunaz eta lore ugarien polikromiaz gozatzen dugun bitartean. Hainbesteko apaingarrien eta bertan arnasten den giro espiritualaren ardura, Felipe Ipas Anaut izabarrarena baino ez da. Duela zazpi urtez geroztik, Felipe Ipas bertako ermitaua da. Baina Felipe, Idoiako santutegia eta bertara joateko bideko 900 metroak paradisu bilakatu dituen gizona baino zerbaite gehiago da: bihotz oneko ermitau honek bere zibilua utzi du elizatxo horretan, etnologia erakusketa apal baina osatua eratu baitu ondoan dagoen etxetxoan.

Erakusketa horretan Felipek desagertzeko zorian ziren ehundaka tresna, lanabes eta argazki bildu ditu, guztiak ere Pirinioetako kulturarako, eta, batez ere Erronkarikorako, balio handia dute.

Zabortegetian bildutako

altxorra • Altxor txiki horrek badu, gainera, ezaugarri bitxi bat, beste erakusketetatik



Bildutakoaz harro dago Felipe Ipas

bereizten duen ezaugarri bat: pieza gehienak ez dira jabeek erakustoki hasi berri honi oparitutakoak, Aezkoa, Zaraitzu, Erronkari, Antso eta Hecho Nabaskozeko bailaretako zakarrontzietan aurkitutakoak baizik. Hainbat lanabes, argazki eta tresna, itxura zaharrekoak, urtetan zehar jabeen arduragabeberia dela eta zabortegetara bota izan direnak. Jabeek, traste zahar eta baliogabeak gainetik kentzen zituztelakoan botatzen zituzten ondare hauek, duela gutxi arte gizarteak traste zaharrekiko izan duen sentsibilitate ezaren ondorioz.

Felipe Ipasek betidanik izan du gure arbasoen bizimodua ezagutzeko irrika. Bera ohartzen zenez, gure zabortegetian hurbileko historiaren zati haundi bat galtzen ari zen. Horrela, urtetan zehar bere motorraren laguntzarekin bakarrik, denbora librea zuenean, lekuko etnografiko interesgarri askoren zoritxarreko helmuga ziren zabortegetian barna ibiltzen zen, berreskuratu ezinako Pirinioetako historiaren zatia bilakatzear zuden tresna horiek jasotzen.

Gaur egun, Felipe Ipas bera da, bertako ermitaua denez, Idoiako santutegiaren *nagusia*, bera da han, jaun eta jabe. Ideia bikain bat izan zuen Felipek: bere etxearen ondoan dagoen bordatxoa konpondu eta erakusketa bitxia moldatu zuen bertan. Argiztapen berezirik gabe, batera luxurik ga-

be, aparteko ezer gabe, baina txukun-txukun, berak berreskuratutako altxorren zati garrantzitsu bat (dena ez baita kabitzen) du ikusgai bere erakusketan, bertara hurbiltzen direnek ezagutu ahal ditzaten.

Museo xelebre hau ez da gide-tan agertzen, ez du inongo dirulaguntzarik, izenik ere ez du; baina, horren orde, eta egari zor zaion begiruneagatik, esan dezakegu oso erakusketa osatu baten aurrean gaudela. Ingurunean bertan kokatua dago erakusketa, eta inguratzen duten paisaiek XIX. mendearan amaiera eta XX.aren hasiera dakarkigute gogora, imajinario gehiegi izan gabe. Tresna horiek ikusi nahi izanez gero, ermituari eskatu baino ez da egin behar, eta berak gustura asko erakusten ditu tresna guztiak, baita beharrezko azalpenak eman ere.

Besteak beste, ia galduta dagoen almediatzainen ohiturak ezagutzeko aukera izango du bisitariak Idoiako santutegiaren ondoan. Nola eramaten zituzten aspaldi batean, beraiek egindako almedietan Pirinioetatik hartutako egurra erosleen eskuetaraino, harri eta uraren haserre gaindituz.

Aukeratutako zuhaitzak botatzeko erabiltzen ziren harrizko trontza zaharrak ere badaude erakusketan: zerrak, ginbaletak, astralak eta egurra prestatu eta almediak eraikitze beharrezkoak izaten ziren hainbat tresneria.

Artzainen bizimodua ere jasotzen du, xehetasunez betea, Felipek erakustokiak: Erronkariko gazta ospetsua egiteko beharrezkoak izaten ziren tresnak, mota guztietako zintzarriak, elurraren gainean ibili ahal izateko egurrezko erraketak, abereak jezteko lanabesak... Tresna horiek guztiak gerriko gorri, abarka zahar eta eguzkiak gastaturiko txanoekin ibiltzen ziren Erronkariko artzain zahar eta bizkar sendoko haien bizimoduaren gogortasunaren berri ematen digute. Gogortasuna eta sofrimendua. Udan Larra, Lakora eta Animerkandia inguruetan ibiltzen baziren ere, negua iritsi orduko, bere erret eskubidea aprobetxatuz Nafarroako Erriberaraino joaten ziren belar bila, Erronkariko abelbide zaharreen barna.

Dagoeneko erabiltzen ez diren lurra lantzeko lanabesak ere badira erakusketan: aroztegetako tresnak, ehizerako armak, otso eta hartzez babesteko zepoak, ferrak, duela mendeetako giltzak, zaldi gainean ibiltzeko beharrezkoak, ogia egitekoak, sukaldeko ontziak, burdinezko plantxa zaharrak, zeramika... eta argazkiak, argazki ugari.

Ingurunean bertan kokatutako dohaineko erakusketa • Idoiako erakusketia, beraz, bere sustaiekin bat egin nahi duenarentzat bisita saihestu ezina da. Material hori guztia batera aurkitu ahal izatea luxu bat da. Gainera,

Izabako Udalak herrian bertan etnografia erakustoki bat eratze-ko asmoa du, eta beste zenbaiten artean, Felipe beraren laguntza izango du erakustokiak, bi erakusketetarako adina altxor baitu. Zorte handia du Izabako herriak: aspaldiko eta gaurko gizaldien arteko lotura gordetzeko prest dagoen bizilagun bat ez duite herri guztiak izaten. Aspaldi-koak bere bizimodu tradizionalen amaieraren lekuko izan ziren, eta gaur egungo gizaldi hau, berriz, aspaldiko lekuko kostumbristak berreskuratzeko prest dagoela dirudi.

Esperientzia guztiz ziragarria izan daiteke Erronkariko txoko honetara hurbildu, inongo presarik gabe, espirtu sentsible batez, eta leku horren bakardadean, harrizko pareta sendo haien artean, mende honen hasierako urte haiek gogoratu. Milaka urtetako hizkuntza baten amaieraren lekuko izan zen mendea, Erronkariko euskararena. Euskararekin batera, kultura bat, jatzera bat, eta bizitzeko era bat ere galdu ziren beste hainbat gauzez gain. Askoz erosoagoa eta atzerritarra ere baden kultura batek gure usadio sakonenak suntsitu ditu, guk askotan horren aurka ezer egin gabe.

Gure euskal kulturaren sustaiekin omendu nahi dituen erakusketa honetaraino errespetuz eta mirespenaz hurbiltzea merezi du. X

* **Erkuden Amatria** ♦ Dantzaria

«Ongi dantzatzen ikasi nahi dut Londresen»

Bilbon joan den ekainean froga batzuk gainditu eta gero, Erkuden Amatria iruindarra Londreseko Dantza Eskolan hasiko da dantza garaikidea ikasten iraillean. Txikitatik afizio eta aisialdiko eginkizuna izan duena ogibide eta bokazio duen aurkitzera doa Erresuma Batuko hiriburura.

Irene Arrizurieta /Iruñea

Londresera joan aurretik azkeneko prestaketak egiten dabil Erkuden. Ele gutxiko neska, kostata hitz egin du aurrean duen erronkaz. Dena den, kafetxo baten arrimoan lasai eta luze mintzatu da.

■ **Londreserako bidea hartu baino lehen, hainbat pauso eman behar izan dituzu dantzan ikasteko. Nola hasi zinen?**

Nik txikitatik dantzatzen dut. Iruñeko Donibane auzoko Almuñena Lobonen akademiara joaten hasi nintzen zazpi urterekin. Gero Paula Gutierrezekin hasi nintzen dantza klasikoa ikasten. Niretzat dantzatzea zaletasuna izan da beti eta ez dut pentsatu ogibidea izan zitekeenik. Duela bi urte Nafarroako Dantza Eskolan dantza garaikidea egiten hasi nintzen, klasikoa baino gehiago gustatzen baitzait. Iaz, UBIko ikasketak bukatu eta gero, erabaki behar nuen dantzatzen jarraituko nuen edo ikasten. Azkenean, Bilbora joan nintzen Ingurugiro Kudeaketa ikasketak egitera.

■ **Zergatik aukera hori?**

Iruñean Nafarroako Dantza Eskolan ari bazara titulua atera dezakezu, baina dantza klasikoa bakarrik. Gainera, orain LOGSEarekin (Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorreko Legea) ez dago oso argi zer gertatuko den dantzarekin, eta Bilbora joatea hobe zela iruditu zitzaidan.

■ **Londresen zer egingen duzu?**

Londreseko The Plays dantza garaikideko konpainiarekin ariko naiz. Berez hiru urteko ikasturtea da, Cambridgeko Unibertsita-

te barruan zaude, baina Londresen ikasten duzu. Ongi dantzatzen eta interpretatzen ikasiko dut. Ikasketak utzi eta dantzan serioago hasteko erabakia zergatik hartu duzu? Otsailean irakasleak animaturik The Plays eskolak antolatutako froga batzuk egin nituen eta aukeratu ninduten. Ingalaterran bi dira eskola garrantzitsuak, Rembrandt eta The Plays, eta niretzat esperientzia oso ona da.

■ **Londresera zoaz ikastera, hemen ez dago dantza garaikidea ikasteko aukerarik?**

Euskal Herrian akademietan ikas dezakezu, eta Bilbon hasi dira tituluak ematen. Bartzelonan Antzerki Institutua dago, eta han ere ikas dezakezu, baina bestela ez dago aukerarik. Jende gehiena kanpora doa ikastera.

■ **Beraz, zuk diozunaren arabera, hemen ez dago ez azpiegitura egokirik ez prestakuntza onik egiterik?**

Betidanik baztertua egon da eta ez zaio garrantzirik eman hezkuntzan. Ikasi nahi bazenuen oso garestiak diren akademietara joan behar zenuen. Administrazioak ez du begirunerik, eta, gainera, ez du dirulaguntzarik ematen. Nirekin dantzatzen ibili direnak Alemaniara edo Erresuma Batura joan dira ikastera aukera gehiago daudelako. Iruñea oso txikia da eta dantzatzen jarraitu nahi izanez gero atera behar duzu. Bilbon badira akademia onak, eta Euskadiko Baleta dago baina diru arazo larriak ditu.

■ **Ikasturtean Erresuma Batuko hiriburuan egonen zara. Zein da zure asmoa?**

Ikastera noa. Nik badakit ikasteko asko dudala. Hori bakarrik



Erkuden Amatria laster abiatuko da Erresuma Batura.

ez. Dantzaren mundua zer den probatu nahi dut. Iruñean goizean ikastolan ikasten nuen, eta arratsaldean dantzatzera joaten nintzen. Orain arte zaletasuna besterik ez zena zerbait gehiago den probatu nahi dut Londresen. Egun osoa dantza ikasten ariko naiz, goizeko 9:00etan sartzen naiz klasera eta arratsaldeko 18:00ak arte ez naiz ateratzen.

■ **Dantza garaikideak sakrifizio eta lan asko suposatzen dizu?**

Dantza klasikoak baino gutxiago. Klasikoa teknikoagoa da, eta gorputzak ere ezaugarri jakin batzuk behar ditu, garaikideak, berriz, askatasun gehiago ematen dizu. Klasikotik garaikidera salto egin nuen probatzea-

gatik eta gusturago sentitzen nintzelako. Garaikidearekin gehiago adieraz dezakezu. Dena den, garaikidea egiteko klasikoa-ren teknika menperatu behar duzu eta nahitaez ikasi behar da.

■ **Londres eta gero, zein asmo duzu?**

Nik dantzatu egin nahi dut. Hona etorri eta hemengo konpainia batean egotea ez da nire helburua. Berdin zait hemen edo atzerrian aritu behar izatea.

■ **Dantzari izarra izatea gustatuko litzaizuke?**

Nik ongi dantzatzen ikasi nahi dut, dantzari ona izan, baina, betiere, maila apalagoan. Nik lana egingo dut eta konpainia bateko lehen dantzaria iris-

s o s l a i a

Erkuden Amatria iruindarrak abuztuaren 28an beteko ditu 20 urte. Iragan urtean Bilbon Ingurugiro Kudeaketa ikasketen aurreneko urtea egin

ondoren, Londresera dantza garaikidea ikastea doa. Etsiko ote duen beldur den arren, irailaren 1ean hasiko duen ikasturtean gogorlan egiteko gogoarekin doa.

Dena den, Nafarroako Gobernuak dantzarekiko eta orohar kulturarekiko duten begirune eskasa kritikatu du. Dirulaguntzak lortzeko hainbat ate jo ditu, eta ez du oraindik sositik ikusi. Herrialdeko Dantza Eskolan «gauza asko» egiteko aukera dagoela uste du, baina «gogorik ez».

Ikasturtea heldu den urteko maiatzaren 31n bukatuko du, baina lehenagotik Nafarroara bueltatuko da, dantzatzeaz gain familiarekin eta lagunekin egotea baitu gustuko en. «Joan baino lehen noiz itzuli pentsatzen ari naiz», dio.

ten banaiz ongi, baina ez da nire helburua. Nahiago dut talde lana.

■ **Dantzari on batek zein ezaugarri izan behar ditu?**

Dantzariak jakin behar du sentitzen duena adierazten. Nahiz eta teknika oso ona izan gero eszenatokian ez baduzu ezer transmititzen ez dago ezer egiterik. Nik nahiago dut teknika gutxiago menperatu eta sentitzen dudana adierazten jakin. Teknikarekin ongi moldaten naiz, baina dantza adieraztea gehiago kostatzen zait lotsatia naizelako. Jendearen aurrean urdu-ri atera izan naiz beti eta ez dut gozatu izan. Hori ere ikasi beharko dut. x

Erkuden Amatria: «Orain arte zaletasuna bakarrik izan dena zerbait gehiago den probatu nahi dut ikasturte honetan»

BEKARIO!

Zaldi Eroa

